## JENDE UGARI SAGASTUMEREN OMENALDIAN

Gipuzkoako Gurutze Gorria erakundea sortu zuen bedaiotarrak eta plaka bat eskaini zioten asteburuan › 4



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** .info

**Asteazkena**
**2010-07-14**

VIII. URTEA 2.051. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO


# «Udalbiltza elkartearen benetako izaera desitxuratu dute»

**POLITIKA** Ezker Abertzaleak, EAk eta Aralarrek izango diren ekimenetan parte hartzeko deia egin dute

**EKITALDIAK** Bihar elkarretaratzeak izango dira Tolosan eta Anoetan; Leitzan, berriz, etzi egingo dute 2




Aralarreko, EAko eta Ezker Abertzaleko hautetsiak atzoko prentsaurrekoan, Tolosan. I. TERRADILLOS

## Eskualdeetako herriak metatutako zor biziari aurre egin nahian

**EKONOMIA** Espainiako Gobernuak zorpetutako herrien zerrenda kaleratu berri du; Tolosa eta Zizurkil lehen 20 herrien artean daude 3

**JESUS ARTETXE**
BILADI ELKARTEKO KIDEA

### «Israelek Turkia zigortu nahi zuen, azkenaldiko tirabirak direla eta»

**POLITIKA** Askatasunaren Flotillaz hitz egin du 5



A. SANZ


TX sarrerak



Uztailaren 15, 16, 17 eta 18an ospatuko den
14. Villabonako Garagardo Azokarako,
bi pertsonentzako 4 afari zozkatuko ditugu,
egun bakoitzerako bat

sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira




harpidedunen TXOKOA hitza




Ezker Abertzaleko Tolosaldeko alkate, alkate ohi, zinegotzi eta zinegotzi ohiak, EA eta Aralarreko hautetsiekin batera, atzoko agerraldian. I.T.

# Udalbiltza auziaren aurkako ekimenetan parte hartzera deitu dituzte herritarrak

**Politika** » Bihar eta etzi Anoetan, Leitzan eta Tolosan elkarretaratzeak egingo dituzte; larunbatean Bilbon manifestazioa.

**IÑIGO TERRADILLOS**

Bihar hasiko da Udalbiltzaren aurkako epaiketa Espainiako Auzitegi Nazionalean eta eskualdeetan auzipetuei babesa agertzeko ekimen ugari abiarazi dituzte. Izan ere, 2003ko apirilaren 29an egin zuten Euskal Herriko udalen elkartearen aurkako operazioa, Baltasar Garzon Auzitegi Nazionaleko epaileak aginduta. 22 auzipetu daude denera, eta 10 eta 22 urte arteko kartzela zigor eskaerak egin dituzte haien aurka, ETArekin lotura dutelakoan.

Bada, auziaren aurka egiteko larunbat honetarako manifestaziora deitu dute Bilbon Udalbiltzako auzipetuek eta Euskal Herriko zenbait eragilek. Horretaz gain, elkarretaratzeak ere egingo dituzte Euskal Herriko hainbat herritan. Gurean, Anoetan eta Tolosan izango dira bihar, eta Leitzan, berriz, etzi egingo dute. Protesta ekitaldi horietan parte hartzera eta horrela auzipetuei babesa ematera deitu dituzte herritarrak Ezker Abertzaleko Tolosaldeko alkate, alkate ohi, zinegotzi eta zinegotzi ohiek, EA eta Aralarreko hautetsiekin batera atzo eskainitako prentsaurrekoan. Era berean, Adunan pasa den astelehenean onartu zuten auzipetuei babesa erakusteko mozioa eta ondoren elkarretaratzea egin genuen.

### «Oinarri demokratikodun instituzio bat kaltetu zuten»

Atzo eginiko agerraldian azaldu zutenez, «duela zazpi urte, udal hautetsiak eta Udalbiltzako langileak atxilotu eta oinarri demokratikodun instituzio bat kaltetu zuten; 4 alkate eta 15 zinegotzi daude auzipetuen artean, euren jarduera instituzionala eta Euskal Herriko Udalen arteko elkarlana egite hutsagatik». Halaber, gogoratu zuten «talde terroristako kide izatea» eta «diru publikoen erabilera okerra» bezalako akusazio «faltsuak» daudela euren aurka. «Inolako frogarik gabeko gezurrak dira, Udalbiltzaren defentsak deuseztatuko dituenak». Auziaren inguruan, bestalde, «Espainiako Gobernuak sustatu eta Ministerio fiskalak zein Dignidad y Justicia elkarteak sostengaturiko gezurrezko bertsioaren gainean eraikia» izan dela salatu zuten. Azaldu zutenaren arabera, «Udalbiltzaren benetako izaera desitxuratu, eta sorreran eta garapenean milaka udal hautetsik parte hartu zutela estali dute».

Dena den, euren ustez, Euskal Herriko iritzi publikoaren «gehiengoak» ukatu egiten du Espainiako Auzitegi Nazionalaren «bertsio interesatua». «Horren erakusgarri da gehiengo politiko, sindikal eta soziala epaiketaren kontra azaldu izana, auzipetuen absoluzioa eskatuz».

### Defentsa «oztopatua»

Bestalde, epaimahaiak defentsarako elementuak moztu izanak «larriki» oztopatu duela Udalbiltzaren defentsa salatu dute. «Udalbiltzaren lanaren azalpena egiteko ziren lekukotzak eta dokumentuak ezabatu dituzte, batik bat nazio ikuspegiarekin loturiko elementuak». Mozketen artean lekukoena legoke, izan ere, defentsak proposatutako 140 lekukoetatik, epaimahaiak 20 bakarrik onartu ditu. Kendutakoen artean, alderdi politiko desberdinetako udal hautetsiak, Euskal Herriko gizarte, kultura, kirol zein hezkuntza arloko eragileak edota nazioarte mailako lekukoak, Udalbiltzarekin inplementatutako elkarlan harremanak azaldu behar zituztenak, leudeke. Era berean, Udalbiltzak aurkeztu nahi zituen 165 froga dokumentalak eta bi froga perizialak baztertu egin dituzte.

Horiek horrela, bihar Madrilen hastekoa den auziaren aurka egin eta auzipetuei babesa azaltzeko eragile sindikal, politiko, sozial eta oro har herritar guztiak gonbidatzen dituzte elkarretaratzeetan eta larunbat arratsaldean Bilbon egingo den manifestazioan parte hartzera.

Bestalde, epaiketak gastu ekonomiko «handia» eragingo duela esan dute; hain zuzen ere, bidaien, egonaldien eta gastu judizialen artean 200.000 euro inguruko gastua aurreikusten dute. Hori dela eta, elkartasun bonoak, kamisetak eta pin-ak saltzearekin batera, auzipetuei elkartasun ekonomikoa helarazteko kontu korrontea (Euskadiko Kutxa 3035 0071 6307 1112 4600) ireki dute.

### » ELKARRETARATZEAK

■ **Anoeta.** Bihar, 19:00etan, Udal osoko bilkura, eta ondoren elkarretaratzea udaletxearen aurrean. Larunbateko Bilboko manifestaziora joateko autobuserako Itzuli tabernan eman daiteke izena.
■ **Leitza.** Elkarretaratzea, etzi, 12:00etan, udaletxearen aurrean.
■ **Tolosa.** Elkarretaratzea, bihar, 20:00etan, udaletxearen aurrean.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Iragarki laburrak

**ALOKAIRUA**

■ **Baserria edo borda.** Eskualdean baserria edo borda alokatuko genuke. Interesatuek deitu 634 45 91 10 telefono zenbakira.

## Laburrak

### Hiru pelikula emango dituzte aste honetan

**TOLOSA** ● Hiru film izango dira ikusgai bihartik astelehenera Leidor aretoan. Batetik, bihar, osteguna izaki, zine forum saioa izango da. *Honeymoons* filma emango dute ohi bezala jatorrizko bertsioan, 21:00etan hasita. Larunbatean *Campamento Flipy* filma izango da ikusgai 19:30ean eta 22:30ean. Igandean 19:30ean eta astelehenean (ikuslearen eguna) 20:30ean *Rabia* emango dute. Azken honen zuzendaria Sebastian Cordero da. Filmaren zati handi bat Bidanian grabatu zuten 2008 urteko ekainean.

### Autobusa Larraitz auzoan geratuko da festa egunetan

**ALEGIA** ● Jai Batzordetik azaldu dutenez, Karmengo festak ospatzen dituztenez, Tolosaldeko autobusak soilik Larraitz auzoko geltokian geratuko dira bihartik igandera.

### Eriste eta Posets mendietara Oargirekin

**TOLOSA** ● Oargi elkarteak Eriste (3.053 m) eta Posets (3.375 m) mendietara irteera antolatu du uztailaren 16tik 18ra. Informazio gehiago *www.oargi.org* helbidean.

## Telefonoak

**Larrialdiak.** ((112))

**OSASUNA.**
**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212
**Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 943 65 23 39
**Asteasu.** Medikua: 943 692423
**Baliarrain.** Medikua: 943 889003
**Berastegi-Elduain.** Medikua: 943 683361
**Ibarraldea.** Osasun etxea: 943 672411
**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329
**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720
**Leitza.** Osasun z.: 948 510800
**Orendain.** Medikua: 943 655595
**Orexa.** Medikua: 943 682228
**Tolosa.**
**Anbulatorioa, larriald:** 943 461111
**San Esteban:** 943 006800
**Gernikako arbola:** 943 006900
**Amarozko dispen.:** 943 672637
**Asuncion klinika:** 943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdiak)
**DYA:** 943 672536
**Gurutze Gorria:** 943 674888
**Villabona.** Anbulat.: 943 006970
**Zizurkil.** Aiztondo zerb: 943 693930
**GARRAIOAK.**
**Renfe:** 902 24 02 02
**Tolosaldea bus:** 943 650621
**Leitzaran autob.:** 948 221015
**Taxia:** 943 670420
**Taxia (Leitza):** 608 873016
**BESTERIK.**
**Ertzaintza:** 943 538820
**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858
**Tolargi:** 943 650016
**Iurramendi egoitza:** 943 670325
**Tolosa gasa:** 943 675320
**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474




Tolosa Gipuzkoako udalerri zorpetuenetako bat da; sailkapen horretan bosgarren postuan ageri da. Leitzaren kasuak Nafarroako udalen egoera berezia azaleratzen du. HITZA

# Eskualdeko udalak zorraren aurrean

**Ekonomia»** Tolosaldeko eta Leitzaldeko udalen zor bizia kaleratu du Espainiako Gobernuak; datuak urte hasierakoak dira.

ASIER IMAZ

Espainiako Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren webgunean, eskualdeko udalen inguruko datuak agertzen dira; 2009ko zor biziaren ingurukoak, hain zuzen ere.

2010. urtearen hasieran, zor gehien zuten Gipuzkoako 20 herrien artean, Tolosa eta Zizurkil aurkitzen dira. Zerrenda honen bosgarren postuan dago Tolosa, Donostia, Irun, Errenteria eta Zarautzen atzetik. Zizurkil berriz, 20. postuan ageri da.

Zor bizia, besteak beste, banketxe eta kutxen laguntzaz kalkulatzen du Espainiako Bankuak urtero; abenduaren 31n oraindik ordaindu gabe dauden mailegu guztiak kontutan hartuta. Gauzak horrela, zor bizia kalkulatzeko garaian zor komertziala ez da kontutan hartzen.

Espainiako Ekonomia eta Ogasun Ministerioak zabaldu dituen datuen arabera, Tolosak 2009ko abenduaren 31n, 11.835.000 euroko zor bizia zuen. Zizurkilek aldiz, 3.271.000 eurokoa.

### Tolosaren egoera gertutik

Tolosako udaletxetik jakinarazi dutenez, duela gutxi komunikabideetan Udalaren zorra 18 milioi eurokoa zela azaldu zen. Datu hori ordea, «ez da erabat zehatza», Udalak egun duen zorra «ia 13 milioi eurokoa baita». 18 milioi euro horiek, Udalarekin lotura duten bost elkarte edo enpresen maileguak kontutan hartuta atera ziren. Udaletxetik jakinarazi dutenez ordea, Udalaren zor bizitik kanpo egongo lirateke adibidez Tolargi edo Erretengibelen maileguak.

Teknikoen iritziz, Udalaren zorra jaitsi egin beharko litzateke, baina aldi berean, horrek ez du esan nahi Tolosako Udala osasuntsu ez dagoenik: «Inbertsio ikaragarriak egin dira, jende ugari biltzen duen Kiroldegia horren lekuko. Hala eta guztiz ere, portzentaia ofizialetik oso urrun dago Udala. Hau da, zorpetze maila gehienez ohiko sarreren %25era iritsi daiteke, eta udaletxea %4-5ean dabil».

Zor biziaren ondorio kaltegarriena agian, maileguaren ordainketa da. Alde batetik interesak ordaindu behar dira eta bestetik maileguaren dirua bera, hau da, amortizazioa deritzona. Tolosak adibidez, urtean 900.000 euro inguru itzuli behar izaten omen ditu modu horretan.

### Leitzaren aukera

Nafarroako udalerrien egoera guztiz desberdina da, «udalen finantziazioa askoz baxuagoa» delako. Leitzako alkatearen, Xabier Zabaloren, kalkuluen arabera, «Nafarroako udalek Gipuzkoakoekin alderatuta, urtero hiru aldiz diru gutxiago jasotzen dute zuzeneko finantziazioaren bidez». Honen ondorioz, inbertsioak egiterako unean, udal nafarrek zorpetzera jotzen dute.

Hala eta guztiz ere, Leitzako Udala osatzen duten hautetsiek bide bati ekin zioten udaletxearen ardura hartu zutenean: «Udalaren egoera ikusita, alde batetik gehiago ez zorpetzea erabaki genuen, eta bestetik, zorra jaisten hastea. Hiru urte hauetan 500.000 euro amortizatu ditugu. Zorrak azkenean, gauza bera suposatzen du udal batentzat edo herritar batentzat: amortizazioa, interesak... eta gero eta zor handiagoa orduan eta diru gehiago banketxeentzat».

Leitzak 2009ko abenduaren 31n 2.309.000 euroko zor bizia zuen. Zabaloren ustez, zenbaki horiei buelta emateko ez dago errezeta magikorik: «Eguneroko lana eta erokeriarik ez egitea; inbertsioak beti diru-laguntzekin egitea eta ohiko gastuari eustea».

Espainiako Gobernuak datorren urtean udaletxeei zorpetzen ez ziela utziko esan zuenean, Nafarroako Gobernua erabaki horren aurka azaldu zen. Udalerriek orain arte bezala jarraitzeko aukera izango dute beraz. Zabaloren esanetan, «lege hori Nafarroan sartuko balitz, udalen finantziazioa guztiz ezinezkoa izango litzateke. Lehen ere, bizirauteko oinarrizkoa bakarrik jasotzen dugu. Inbertsioetarako bi aukera dituzu, zorpetzea edo diru-laguntzen bidez egitea. Nafarroako Gobernuari erabat eskean ibiltzea suposatzen du horrek. Nahi dituzun proiektuak ezin dituzu aurrera atera; eurek onartzen dutena bakarrik egingo duzu. Finantziazio modu honekin, Nafarroako Gobernuan bezero hutsak gara».

Inguruko antzeko herrietan ordea, egoera larriagoa da. Lesaka: 2779 biztanle eta 4.904.000 euroko zorra eta Lekunberri: 1.295 biztanle eta 3.660.000 euroko zorra.

### » UDALEN ZOR BIZIA

| | 2008 (mila euro) | 2009 (mila euro) | Biztanle kopurua 2008an |
|---|---|---|---|
| **Abaltzisketa** | 60 | 54 | 317 |
| **Aduna** | 301 | 280 | 376 |
| **Albiztur** | 0 | 0 | 314 |
| **Alegia** | 406 | 0 | 1.710 |
| **Alkiza** | 0 | 0 | 347 |
| **Altzo** | 0 | 0 | 400 |
| **Amezketa** | 448 | 775 | 983 |
| **Anoeta** | 2.761 | 2.661 | 1.811 |
| **Areso** | 387 | 379 | 282 |
| **Asteasu** | 849 | 775 | 1.488 |
| **Baliarrain** | 150 | 133 | 100 |
| **Belauntza** | 167 | 147 | 319 |
| **Berastegi** | 90 | 75 | 1.031 |
| **Berrobi** | 669 | 373 | 589 |
| **Bidegoian** | 577 | 544 | 492 |
| **Elduain** | 75 | 69 | 236 |
| **Gaztelu** | 219 | 201 | 166 |
| **Hernialde** | 0 | 0 | 343 |
| **Ibarra** | 904 | 795 | 4.298 |
| **Ikaztegieta** | 498 | 576 | 459 |
| **Irura** | 20 | 12 | 1.418 |
| **Larraul** | 49 | 45 | 239 |
| **Leaburu** | 0 | 0 | 388 |
| **Leitza** | 2.496 | 2.305 | 2.876 |
| **Lizartza** | 217 | 194 | 628 |
| **Orendain** | 0 | 0 | 180 |
| **Orexa** | 73 | 67 | 121 |
| **Tolosa** | 12.458 | 11.835 | 17.894 |
| **Villabona** | 2.379 | 3.139 | 5.760 |
| **Zizurkil** | 2.970 | 3.271 | 2.794 |

*2008ko eta 2009ko datuak abenduaren 31koak dira.

MENDI-ALDE
Jatetxea
Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jaunartzeak...
San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

**Gidariak** behar dira
dokumentazioa eta balijak banatzeko.
Postu finkoak
erakunde publikoetan.
Lanaldi jarraia.
610-71 97 82

**Lan publikoetarako**
zaintzaileak, igeltseroak,
arotzak, argiketariak,
eta mantenurako
langileak behar dira.
Lanpostu finkoak.
600-97 74 95

**Telefonistak/harreragileak**
behar dira eraikin
publikoetarako.
Postu finkoak.
Lanaldi jarraia.
607 -25 42 40

# Jende ugari Jose Ramon Sagastumeren omenaldian

**Bedaio»** Gipuzkoako Gurutze Gorriaren 140. urteurrena aitzaki harturik, omenaldia egin zioten erakundea sortu zuen bedaiotarrari.

OIHANA IGUARAN

Joan zen larunbatean jarri zen hitzordua Bedaion, Gipuzkoako Gurutze Gorriaren 140. urteurrenarekin batera, erakunde horren sortzaile izan zen mediku bedaiotarrari plaka bat eskaintzeko, bere lanaren omenez.

Gurutze Gorriak urteurrena Bedaion omenaldia eginez ospatu nahia sorpresa polita izan zen, gainera, bedaiotarrentzat. «Donostian edo beste herri batean egin zitekeen omenaldia baina Bedaiora ekarri dute», azaldu zuten herritarrek.

Festa xume bezain polita antolatu zuten beraz herritarrek bertaratu ziren Gurutze Gorriko kideek goza zezaten. Ez zuten ospakizunean faltatu nahi izan Enrique Samaniego Gipuzkoako Gurutze Gorriko lehendakariak, Iñaki Irusta erkidegoko Gurutze Gorriko lehendakariak eta Jokin Bildarratz, Tolosako alkateak.

### Miresmeneko hitzak

Oso pozik agertu ziren antolatzaileak eta omendua zen medikua gogoan harturik miresmenezko hitzak eskaini zizkioten: «1817. urtean errepiderik gabeko gune menditsu eta gogor batean jaiotako gizonak pasako zituen zailtasunak eredugarri izan daitezke ondoren sortu zuen elkargoaren oinarrian. Laguntza, elkartasuna, eta zailtasunei aurre egiteko gaitasuna dira gaur egun Gurutze Gorriako bereizgarriak eta Bedaion indarrean jarraitzen duten balio garrantzitsu hauek elkarrekin gogoratzeak oso ederra izan da».

### Plaka bat borondateari

Egitarau zabalean, bereziki polita izan zen erakundearen sortzaile izan zen Jose Ramon Sagastumeri egindako plakaren eskaintza.

«Bedaiotar herriak oso gustura prestatu du Gurutze Gorriarekin batera omenaldi ekitaldia eta lora-

**Ekitaldia txistuen doinuekin eta aurreskuarekin hasi eta meriendarekin bukatu zen**

tegi hauetan geratu da egun garrantzitsu hau gogoratuko duen harria», aitortu zuten antolatzaileek, Gurutze Gorriko familiaren profesionaltasuna goraipatuz. «Ederra da Sagastumek hasitako bideari 140 urteren ondoren oinarrizko balio unibertsalak mantenduz dabiltzala ikustea», gaineratu zuten. Ekitaldia txistuen doinuekin eta aurreskuarekin hasi zen, eta lehen aipatutako Gurutze Gorriko lehendakariak izan ziren plaka erakusteko ohorea izan zutenak. Bertaratutakoek meriendarekin eman zioten jarraipena festari, urteurrena behar bezala ospatuz, ondo hasitakoa hobeto bukatzeko.

«Zorionak Bedaioren partez Gipuzkoako Gurutze Gorriari», argitu zuten bukatzeko.




Omenaldiarekin batera, Jose Ramon Sagastume medikuari plaka bat jarri zioten. ARTUBI



Gurutze Gorriko langileak ere omenaldian izan ziren. ARTUBI

# 140 urte hauetako uzta erein zuen bedaiotarra

**Omendua»** 1870. urtean sortu zuen Jose Ramon Sagastumek (1817-1893) Gipuzkoako Gurutze Gorria.

OIHANA IGUARAN



ARTUBI

Bedaiotar honek osasungintzan egin zuen lan bere bizitza osoan. Lehenik Nafarroako Gurutze Gorria sortzen lagundu zuen, Espainiako lehena, hain zuzen, eta lau urte beranduago Gipuzkoakoa sortzen aritu zen.

### Ibilbidea

1846. urtean eskuratu zuen doktore gradua, 29 urte zituela. Bost urte beranduago, *Kutxatila-Zirujau* izeneko postua lortu zuen Tuteran, oposizioen bidez. Nafarroako erakundean bozeramaile gisa jardun zen, eta Gipuzkoakoan lehen lehendakaria izan zen, kargu horri bere heriotzara arte eutsiz.

Bere testamentuan ere, diru kopuru polita utzi zuen, errentetan banaturik, Gipuzkoan aurkeztutako medikuntza gaiei lotutako lan onenari sari bat eskaintzeko urtero. Honela, Sagastume Fundazioa sortu zen, Gurutze Gorria ere honen batzordean dagoelarik.

Beste mediku elkarte bat ere sortu zuen, gaur egun Gipuzkoako medikuen eskolaren aurrekari izan zena. Elkarte hau sortzeko, Tames doktorearen laguntza izan zuen, zeinak Sagastumeren heriotzaren ondoren, Gipuzkoako Gurutze Gorriko lehendakari kargua hartu zuen.

### Guden arrastoa

1870. urtean hasi zen gerra franko prusiarra. Gainerako guztiek bezala, sarraski handiak eragin zituen eta milaka izan ziren desagertutakoak, hildakoak edo zauritu zituztenak. Noski, gerraren ondorioz kaltetuen artean herritarrez gain, soldaduak zeuden eta Sagastumek denak sendatzeko ahalegina egin zuen, doktoreak ez baitzion begiratzen zaurituen jatorriari, pertsonari berari baizik.

Bere moduan pentsatzen zuten hainbat boluntarioekin elkartu zen, zein armadetakoak ziren ahazturik, sufritzen ari zen jendeari laguntza eskaintzeko. Izan ere, gerrako sarraskien etengabeko argitalpenek barrena astindu zioten.

Sagastumek, gainerako boluntarioekin elkarturik, neutraltasun politikoa berengan hartuz, gizatasuna jarri zuen politikaren gainetik eta orduan sortu zen Kanpainako Zaurituak Laguntzeko Nazioarteko Elkarte Filantropikoaren Gipuzkoako Probintziako Batzordea delakoa. Gaur egun Gurutze Gorria izenpean ezagutzen dugularik erakunde hau. 140 urtez lan ederra egin duen taldea, hain zuzen. Erakunde honen lehen lana, gerra franko prusiarrak eragindako biktimentzat dirua biltzea izan zen.

Baina bat bukatzerako bestea etorri zen: 1872-1876ko gerra karlista. Kasu honetan, errepide sare onari esker, Gipuzkoako Gurutze Gorriak gurdiz osatutako anbulantzia bolanteak erabili zituen. Neurri txikiagoan, idi-gurdiak ere erabili ziren, gerraren larritasunak sortutako beharrei aurre egiteko. Lan izugarria egin zuten beraz, eskura zuten apurraz baliatuz, eta batere kobratu gabe.

Horra gaur arte egindako bidearen lehen pausuak, bedaiotar baten hanketan abiatuak, hain zuzen ere.

E **Elkarrizketa**

**JESUS ARTETXE ›** Biladi elkarteko kidea




HITZA

# «Gazan egin beharrekoa, blokeoa behingoz deuseztatzea da»

**Politika »** Israelek Gazako flotillaren aurkako erasoan «okerrak» onartu zituen atzo; soldaduek «euren buruaren defentsan» egin omen zuten tiro.

ANE SANZ

Jesus Artetxek (Tolosa, 1949), Biladi Palestinaren aldeko elkarteko kideak, Askatasunaren Flotillak orain gutxi jasandako erasoa salatu du, Gazan bizi duten egoera eta honen erantzuleak zeintzuk diren argi utziz. Irudia garbitzen saiatzeaz utzi, eta behingoz blokeoa deuseztatu beharko litzatekeela uste du. Bide batez, komunikabideei Israeleko egoera islatzeaz gehiago arduratu daitezen eskatu nahi die.

**Maiatzaren 27an Askatasunaren Flotillak jasandako erasoaren inguruan bertsio desberdinak eman dituzte komunikabideetan. Zein arrazoi emango zenioke honi?**

Egia esan gu ez gaitu harritu. Israelek duen armetariko bat bere komunikabideak dira, eta beren lehen helburua iritzi publikoa nahastea da.

Gu informazioaren manipulazio horri aurre egiteko eta iritzi publikoa zaintzeko ari gara lanean bereziki. Adibidez, komunikabideetan ez da beste itsasontziez hitz egin, ezta 700 tripulatzaileez ere. Informazio sentsazionalistenarekin geratzen dira komunikabideak.

Izandako eragina aztertu dugu, eta jendea ez dela hain erraz engainatzen utzi ikusteak pozten gaitu. Tristea da, behingoz arrazoia edukitzeko jendea zendu behar izana. Izan ere, bere burua demokratikotzat duen estatu batean hau onartezina da.

**Israelek iritzi publikoa nahasteko ahaleginak egin dituela diozu, beraz. Eta Espainia mailan, nola ikusi duzu?**

Moratinos eta Solana dira Askatasunaren Flotillarekin gertatu zenaren arduradunak. Erantzule gorenak dira, Ekialde Ertaineko mandatariak direlako. Solana izan zen lehenik, eta ez zuen inoiz ezer egin. Eta Moratinos orain; Estatu Batuetan sariak jasotzen ari dena, bere sionismoaren aldeko jarrerarengatik, hain zuzen ere.

Moratinos hasieratik ibili da gezurretan, hasiera-hasieratik Israelen alde agertu delako. Eta orain hildakoak mahai gainean ikusi dituela, Gazako egoera salatzea baino beste irtenbiderik ez du aurkitu.

**Eraso honek zerbait lortu badu, komunikabideetan oihartzuna izan da, dudarik gabe.**

Bai, hala da. Argi geratu da Israelen zigorgabetasuna komunikabideetan. Israelek bere eskuetan dituen pertsona askoren suntsiketarako armek ukiezin bihurtzen dute. Israelek erailtzen duenean, modu batez bere zigorgabetasunaz baliatzen ari da.

Baina komunikabideetan ez da Israelek dituen armez hitz egiten. Mordechai Vanunu bezalako jendea espetxeratu dute, gune nuklearretan gertatzen dena salatzeagatik.

**Erasoa nazioarteko uretan izan zela esan da komunikabideetan.**

Nazioarteko uretan zeuden, baina Gazaren uretara igarotzekoak ziren. Nazioarteko Auzitegiak Gazaren urak bezala onartu ditu. Erasoa batean edo bestean izan balitz, bietan Israel nazioarteko legeak urratzen egongo litzateke.

Erasoaren atzean, eskarmentu bat emateko nahia zegoen ere. Israelek Turkia zigortu nahi zuen, azkenaldian bi estatuen arteko erlazioetan egon diren tira-birak direla eta.

**Mundu osoan salatu da erasoa. Badirudi mundu guztiak bere laguntasuna eskaini diola palestinar herriari. Baina bertako egoera aldatu al da?**

Nazioartean zerbait aldatu denaren itxura ematen du, irudia garbitzen saiatzen ari dira. Titular handiak agertu dira produktuak sartzen hasi direla, Israelek blokeoa leundu duela eta abar esanez. Egin beharrekoa, blokeoa behingoz deuseztatzea da.

Aldatu dena, jendearen jarrera izan da. Israelen aurka jarri dira. Eta hau eskertzekoa da. Guri adibidez, ez zaigu batere kostatu Tolosako jendeari; merkatariei, kirolariei... benetako egoera zein den sinestaraztea. Espainiar Estatu osoa mobilizatu da, baita nazioartean ere.

Komunikabideek gehiago arduratu beharko lukete bertako parlamentuan izaten diren eztabaidez informatzeaz, Israelgo Estatuan zer gertatzen ari den islatzeaz. Oso paper garrantzitsua dute; Israel zein arrazista den ikusiko litzateke eta.

> «Israelen armetariko bat, bere komunikabideen bidez iritzi publikoa nahastea da»

> «Argi geratu da armek Israelen zigorgabetasuna ukiezin egiten dutela»

**Tolosan ere, erasoa salatzeko mozio bat aurkeztu zen. Mozio hauek zein eragin dute?**

Eginiko guztia, guk Palestinara bidaltzen dugu. Gu lanean ikustean, beraiek ere moralizatu egiten dira. Gainontzeko lekuetan ere jendea mobilizatzen ari dela ikusteak indarra ematen die.

**Biladi Palestinaren aldeko elkartearen kide zara. Zein da zuen helburu nagusia? Nola egiten duzue lan?**

Biladi taldeak Euskadi osoan lan egiten du eta gure helburua sentsibilizatzea da. Bi arlotan dago banatuta: kulturala eta politikoa.

Arlo kulturala nire ustez oso garrantzitsua da. Jendea hilketez eta atentatuez hitz egiteaz asperturik dagoelako. Uste dut hobe dela atal kulturalaren ekarpena egitea, jendeak palestinarrek oinarri garrantzitsu bat dutela uler dezan. Palestinar herriaren historia ezagutu dezaten egiten dugu lan. Niri berriz, arlo politikoa egokitu zait. Kontzientziazio lana egiten dugu, kazetariak eta abar ekarriz. Eguneroko lana da; informazio eguneratua dugu beti.

**Palestinan askotan izan zara, eta aurten ere itzultzekoa zara. Zer egingo duzu bertan?**

Aqaba izeneko herri txiki batera joango naiz, ezagun bati bisita egitera. Aqaban gauzak jadanik sutan daude, eta laster suntsituko dutela uste dut. Bederatzi aldiz agindu diete lurraldea uztea, baina han jarraitzen dute. Gutxi barru Aqaba albiste izango dela iruditzen zait.

**» GAZA BERRERAIKITZEKO BEHAR DIRENAK**

- **105 lantegi.**
- **20 klinika eta ospitale.**
- **159 eskola eta haurrentzako parke.**
- **300.000 pertsona pobrezian bizi dira.** Lehen 100.000 ziren.
- **20.000 pertsona kanpaina dendetan bizi dira.**
- **40.000 pertsona familiakoen laguntzaz bizi dira.**
- **1.000.000 tona zementu.** UNRWAren ustez beharko direnak.
- **25.000 tona zementu.** 2007 eta 2008 urteetan jaso direnak.




## Portugaleten ere arraunak gora

**ARRAUNA** • Pasa den asteburuan Liga bikain hasi zuten Tolosaldeko neska arraunlariek. Gogoratu behar da, era berean, aurrez lau txandatan lehiatu direla eta lau bandera irabazi dituztela.

Larunbatean Kantabriako Pedreñan ospatu zen estropada irabazi zuten, Galiziari ia 7 segundo atereaz. Igandean berriz, Bizkaiko Portugaleten lehiatu ziren, eta berriro ere, 5 segundoren diferentziarekin Tolosa-Getaria izan zen jardunaldiko irabazlea, Gipuzkoako selekzioaren izenean.

Bestalde, igandean mutilen estropadan, Astilleroko arraunlariak izan ziren irabazleak eta nabarmendu behar da, bertan Ugaitz Mendizabalek debutatu zuela ACT ligan, eta Angel Larrañaga bigarren entrenatzaile bezala dabilela; biak eskualdeko arraun klubeko kideak dira. HITZA

## AHTren Tolosa-Hernialde zatiaren eskaintza ireki dute

**Azpiegiturak** » Lanak 31 hilebetetan egitea aurreikusi dute; aurrekontua 112.479.065 eurokoa da.

**ERREDAKZIOA**

Eusko Jaurlaritzak Abiadura Handiko Trenaren Tolosa-Hernialde zatiaren eskaintza prozesua hasi du.

31 hilabeteko exekuzio epea aurreikusi dute eta aurrekontua 112.479.065 eurokoa da. Zatiak 3.811 metro ditu eta ia guztia lur azpitik izango litzate; Aldaba Txikin, Auzo Txikian eta Monteskun, guztira 2.440 metro.

### «Tunel faltsuak» eta biaduktuak

Zatiaren beste 534 metro «tunel faltsua» deritzona izango litzate, Olarrainen eta Aranen, hain justu.

Gainontzekoan zazpi biaduktu izango dira: Salubita, Osaka, San Esteban eta Luzuriaga, guztira 570 metro.

Zatiko 835 metro bakarrik izango dira irekiak.

## Udal-hilerrien kudeaketa arautzeko baldintzak onartuta

**Tolosa** » San Blaseko, Bedaioko eta Aldabako hilerriak ustiatuko dituen enpresak berrikuntzak egin beharko ditu.

**ERREDAKZIOA**

Tolosako Udalak San Blaseko, Aldabako eta Bedaioko udal-hilerrien kudeaketa onartzeko baldintza orria onartu berri du.

Kudeaketaren ardura kontzesio bidez emango dute eta hartzen duenak ustiapenaren ardura hartuko du.

Horiek horrela, enpresak gutxienez San Blaseko hilerrian berritze lanak egin beharko ditu, barruko zein kanpoko urbanizazio lanak egin beharko dituelarik -kaleen eta argiztapenaren konponketa eta bestelako berritze lanak, esaterako-.

### San Blaseko kapera

Bertan dagoen kapera ere berritu beharko du edozein motatako hiletak burutu ahal izateko, hau da, erlijiosoak zein zibilak. Bainugelak, bulegoa eta horma-hobiak eta errautsak edukitzeko tokia ere egin beharko dituzte.

Hilerri guztiak irekita egon beharko dute egunero 09:00etatik 21:00etara, baita jai egunetan ere. Zaintze lanak ere egin beharko ditu enpresak, bideo bidez edo antzeko beste bide bat erabiliz. Izan ere, hilerrien zainketa kudeaketaren ardura hartzen duen enpresak egin beharko du.

San Blasen gainera, gorputzen lekualdaketak, ehorzteak eta hobitik ateratzeak astelehenetik ostiralera egin beharko dira (10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara). Larunbata, igande eta jai egunetan berriz, 10:00etatik 13:00etara egin beharko dira. Gainontzeko hilerrietan hildakoaren senitartekoek agintzen dutenean egingo dira.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri** eta
**Gipuzkoako beste 4 Hitzetan**
**DOAN** agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

**HITZAk Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95



# Urrezko Aizkolari Txapeldunen Ligako saioa, etzi

**Leaburu »** Lehen bi jardunaldiak jokatu ostean, lehen postuan da Anjel Arrospide, Floren Nazabalekin berdinduta.

ERREDAKZIOA

Egur Sport enpresak antolatzen duen Urrezko Aizkolari Txapeldunen Ligako hirugarren jardunaldia jokatuko da etzi Zornotzan (Bizkaia). Larreako belazeetan izango da saioa, eta bertan lehiatuko da Anjel Arrospide leaburuarra. 12:30ean hasiko da norgehiagoka, eta Karmengo jaien baitan ospatuko da.

Sei modalitate ezberdinetan, 20 mozketa egin beharko dituzte parte-hartzaileek. Hala, aurrez aurre izango dira Donato Larretxea, eta Jose Mari Olasagasti. Lehendabizikoak lehendabiziko aldiz jokatuko du gainera 2010eko edizio honetan. Bigarrenak berriz, galdu egin zuen ekainaren 27an Hernanin jokatutako saioan. Orduan, eskualdeko aizkolaria izan zuen aurkari.

Lehendabiziko bi saioen ostean, hau da, Hernanikoa eta Ondategikoa, sailkapeneko lehen postua Floren Nazabalen eta Anjel Arrospiderentzat da. Izan ere, biak bina punturekin aurkitzen dira. Hauen atzetik dira Juan Jose Lopez Azpilikueta eta Jose Maria Olasagasti, bakoitza puntu banarekin. Azkenik, bosgarren postuan, Donato Larretxea beratarra aurkitzen da.

Urrezko Aizkolarien Banakako txapelketaren ostean jokatzen da liga hau. 2010ekoari ekainaren 27an eman zitzaion hasiera.



**Anjel Arrospide ere lehian ariko da etziko saioan.** IDOIA LAHIDALGA

## Laburrak

### Herriko argazki zaharren bilduma osatzen ari dira

**LEITZA●** Herriko kultur talde eta elkarteek martxan jarritako webgunean (*www.leitzakultura.net*) herriko argazki zaharrak ari dira biltzen. Hori dela eta leitzarrei dei egiten diete egitasmoan parte hartzeko eta herriko inguru ezberdinetako, jaietako eta paisaietako garai bateko erretratuak bidaltzeko. Horretarako helbidea ondorengoa da: *alke@leitzakultura.net*

### Goizetan bakarrik dago irekia Kultur Etxea

**IBARRA●** Irailera bitartean Benito Izagirre kultur etxeak eta Udal Liburutegiak udako ordutegia izango dute. Honenbestez, goizetan bakarrik egongo dira zabalik. 09:30ean irekiko dituzte ateak eta 14:00ak arte egongo dira zabalik. Bestalde, abuztuan itxita egongo dela jakinarazi dute. Ordutegi honek irailaren 3a arte iraungo du. Jarraian berriro, goizez eta arratsaldez zabaltzen hasiko dira.

# Bihar ekingo diote Kale Berriko konponketen bigarren faseari

**Villabona »** Lanak direla eta, autobus zerbitzuan nahiz zamalanetako gunean aldaketak egongo dira datozen egunetan.

ERREDAKZIOA

Bihartik aurrera, Villabonako Kale Berriaren lehen zatia erabat fresatu eta errepide asfaltatze lanak burutuko dituzte. Hori dela eta, Udaltzaingoak adierazitakoaren arabera, «trafikoan eragina izango du, eta noski zerbitzu publikoan ere».

Kontuan izanik zentzu bat irekia egongo dela (erabaki dute Tolosaldearako zentzua irekia mantentzea), ez da arazorik egongo Donostiatik Tolosara doazen autobusek bete behar duten zerbitzuekin. Baina, ez da horrela gertatuko Tolosatik Donostiara bete beharrekoarekin. Honenbestez, hauek Olaederra kiroldegi aurrean izango dute geltokia, eliza aurrean izan beharrean eta Arroako biribilgunean itzuli beharko dute gero N-1 errepidera ateratzeko.

Zamalanak burutzeko berriz, Akordeoi deritzon etxe alboetan lekuak erreserbatuko dituzte egun hauetan Kale Berriko saltokiei banaketa egin ahal izateko.

Bestalde, aurreikuspenen arabera, eta eguraldiak laguntzen badu, lanak bi edo hiru egunetan bukatuko dituztela jakinarazi du Udaltzaingoak. Izkina bidegurutzetik elizako bidegurutzeraino (biak barne), beraz bi edo hiru egun hauen ondoren zerbitzu publikoaren zirkulazioak ez du arazorik izango.

**Santioetan ere aldaketak**

Villabonako Jai Nagusiak hilaren 24an hasiko dira eta ondorioz trafikoan aldaketa batzuk izango dira. Kale Berria moztuko dute 24tik 31ra, Izkina bidegurutzetik Elizako bidegurutzeraino, esparrua soilik oinezkoentzako izango delarik.

### Tolosatik Donostiara doazen autobusek geltoki ezberdina izango dute lanak direla eta

Garraio publikoari dagokienez proposatzen dute, garraio publikoak geltoki bakarra izatea, hain zuzen Izkina bidegurutzean. Autobusek lekura iristeko Donostiatik, beti bezala hirira sartu eta ULA atzealdeko kaletik desbideratuko dira Izkinara ateratzeko, bertan gelditu eta Soroaundi inguruko irteeratik Tolosa aldera joango dira. Tolosatik datozen autobusak, Soroaundiko sarreratik Kale Berrira, ULA atzealdetik Iskinara, bertan jendea hartu eta Donostialdera joango dira.



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** .info

**2010-07-14 Eguraldia**

| Goiza | Arratsaldea | Temperatura | Bihar | |
|---|---|---|---|---|
| | | ⌃ 21° | GOIZA | EURIA |
| | | ⌄ 16° | ARRATS. | EGUZKIA |
| | | | BEROENA | 24° |
| | | | HOTZENA | 14° |

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.
**Lege Gordailua:** SS-0398-03
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
**Leitza.** Herriko plaza, 1. 687 410 118
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldekohitza.info.
**Webgunea:** www.tolosaldekohitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean_publi@tolosaldekohitza.info.
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldekohitza.info.
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo @tolosaldekohitza.info.
**Anoetaldea:** 687 410 022. anoetaldea @tolosaldekohitza.info.
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea @tolosaldekohitza.info.
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea @tolosaldekohitza.info.
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea @tolosaldekohitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:** BERTAKO HEDABIDEAK eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile | **Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil | Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**





# Egun pasa «ederra» Deba aldean

**BIDEGOIAN** ● Bidegoiango eta Errezilgo eguneko zentroko eta etxez etxeko laguntzako onuradunek egun pasa polita burutu berri dute. Hain zuzen ere, barrualdetik kostaldera egin zuten Deba inguruan txangoa egiteko. Batetik, argazkian ikus daitekeen bezala, hondartzaz gozatzeko aukera izan zuten, itsasertzean paseatuz. Talasoterapian ederki bazkaldu zuten ondoren, eta Asegarceko pilotariak agurtzeko aukera ere izan zuten. Askorako eman zuen, beraz, egunak, eta «oso gustura» egon zirenez ziur laster antzerako txangoren bat antolatuko dutela. HITZA

## A Agurrak



**Zorionak!**

**Jokin Artola (Amezketa).** Iaz ahaztu zitzaigun, baina aurten ez. Ondo pasa Villabonako familiaren partetik.

**agurrak**

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

## A Agenda

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Alpeetako Jungfrau (4.158 m) eta Monch (4.099 m) mendietara irteera antolatu du Oargi mendi elkarteak abuztuaren 14tik 22ra. Informazioa: *www.oargi.org*.

■ **Tolosa.** Iturriza jubilatu elkarteak Garaiora (Araba) irteera antolatu du abuztuaren 6rako. Informazioa, elkartean (Euskal Herria plaza).

■ **Zizurkil.** Elizpe jubilatu elkarteak Amurriora irteera antolatu du hilaren 21erako, Gasteiz ere bisitatuz. Izen-ematea, elkartean 28 eurotan.

### Erakusketak

■ **Tolosa.** Pixel Panchoren erakusketa dago ikusgai Gko Galerian (Kale Nagusia).

■ **Tolosa.** *Aluminum* erakusketa Fronton jatetxean, aluminiozko eskulturak eta koadroak.

■ **Tolosa.** Kultur tailerreko ikasleen lanen erakusketa, Aranburu jauregian.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74 eta gutzi hori!.

■ **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.






**Gehigarri berezia.** 2010eko uztailaren 14a. **Testuak:** Aritz Mutiozabal

hitza .info

# Ehunmilak

# BADOAZ MENDIAN GORA

**KIROLA** Uztailaren 16tik 18ra Ehunmilak Euskal Herriko Ultratrail lasterketa jokatuko da, eta parte-hartzaileek 168 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute, Beasaindik abiatuz eta Gipuzkoako hainbat eskualde zeharkatuz. II-III



**Mont Blanc-eko ultratailerako puntuagarria izango da Ehunmilak lasterketa.** AKUNAMATATA

Milia batek 1.609,3 metro ditu. Ehun miliek, berriz, 168 kilometro inguru. Hain justu ere, distantzia eta izenburu hori jarri dio Beasaingo Arrastaka Mendizale Taldeak hilaren 16rako antolatu duen Ehunmilak Euskal Herriko Ultratrail mendi lasterketari. Ameriketako Estatu Batuetan luzera horretako probak jokatzeko joera handia dute, eta ehun miliako distantziak ohikoak dira. Atzerriko neurri sistematik kanpo, 150 kilometro ere distantzia borobila izan zitekeela uste dute Ehunmilak probako arduradunek, baina ziur daude ez zela berdin izango. «Chamonix-en (Frantzia), Mont Blanc-eko ultratrail ezagunean ere ehun milia osatu nahian aritu dira azken urteetan, eta badirudi azkenean nola edo hala lortu dutela. Nolabait ere, ehun milia ultratrailetako distantzia gorena da. Orduan, hori bilatzen aritu gara eta ibilbidea pixka bat horretara moldatu dugu», dio Ehunmilak probako antolatzaile Mikel Valdivielsok.

Ehunmilak beste erreferentzia bat izan daiteke hemendik aurrera Euskal Herriko mendi lasterketen denboraldian. Gainera, nortasun propioa duen proba da, ez baitago horrenbeste kilometro eta desnibela duenik inguruan. Mendiko lasterketak errepidera eramanez gero, hamar kilometroko lasterketa, maratoi erdia eta maratoia topatu ditzake korrikalariak. Mendian ere hiru distantzia nabarmen daude, baina kasu honetan proportzioak handiagoak dira: mendi maratoiaren (Zegama-Aizkorri) ondorengoa ehun kilometroetakoa da (Hiru Handiak), eta ondoren, 168 kilometrokoa, ehun milietara (Ehunmilak). Hiru probak ezberdinak dira, nolanahi ere. «Gure lasterketa ehungarren kilometroan hasten da; hau da, Hiru Handiak bukatzen denean abiatzen da», azaltzen du Valdivielsok.

Oro har, hiru proiektuak «oso onak» direla dio: «Zegama-Aizkorri mendi maratoia munduko onenetakoa da; Hiru Handiak probak oihartzun handia bereganatu du azken urteetan, mila parte-hartzaile baino gehiagorekin; eta gu alternatiba eta modalitate berri bat izateko jaio gara, besteekin zerikusi gutxi duena, mendian egiten dela salbu».

**Alternatiba berria**

Erreferente Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo. Hori nahi du izan Ehunmilak-ek. Izan ere, ez da inoiz horrelako probarik egin hemen inguruan, ezta Espainian ere. «Orain arte, atzerrira joan behar izaten genuen guztiok ultratraileko proba luzeren bat egin ahal izateko», aditzera eman du Valdivielsok. Beraz, aukera ezin hobea sortu zaie kirol honekin gozatzen duten kirolzaleei, bertatik bertara halako proba bat egiteko.

Horretaz aparte, Ehunmilak proba Mont Blanc-eko ultratrailerako puntuagarria izango da. «Zirkuitu horren baitan sartu gaituzte, eta puntuazio gorenena izango dugu. Beraz, euskal korrikalariek ez dute zertan atzerrira joan behar puntuak lortzera, Mont Blanc-erako sailkatzeko. Guretzat garrantzitsua da nazioarteko proba onentsuenetako baten babesa jasotzea. Egin dugun lana baloratu dute eta gure alde arriskatu dira», dio antolatzaileak.

ZUGAITZ AYUSO
TXIRRINDUAK
presta ezazu bizikleta oporretarako
Oriamendi, 30 • BEASAIN
Tel.: 943 106 265

Aluminios Aleman
Zubi termikoan haustura duten leihoak • Egur itxurakoak
Kalitate-prezio onekoak
Elbarrena auzoa, 11 LEGAZPI
Tel.: 943-73 39 91 - Faxa: 943-73 1 9 27
www.aluminiosaleman.com
aluminiosaleman@aluminiosaleman.com

MENDIOLA
Eraikuntzak
- Etxebizitzen eraikuntza
- Industri Pabilioiak
- Urbanizazioak
Labeaga, 7 • 943 72 05 11 • Faxa: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)

# Eutsi goiari... eta ez eman amore

**Nekeari aurre egiteko»** Antolatzaileek ahalegin berezia egin dute korrikalariek behar duten guztia topa dezaten lasterketa osoan zehar



Parte-hartzaileek Txindokiko gailurra gainditu beharko dute. ION IZAGIRRE

Ultratraileko muturreko lasterketa batean, beste edozein korrikako edo txirrindularitzako proba batean bezalaxe, milaka taktika daude egoerari ahalik eta ondoen aurre egiteko. Edonola ere, parte-hartzaileek ahalegin handia egin behar dute eta, ondorioz, ongi prestatuta egon behar dute, bai fisikoki bai psikologikoki. «Horrenbeste entrenatu eta gero, zeure burua hobeto ezagutzen duzu», dio Valdivielsok: «Azkenean, jakin badakizu une bakoitzean, eremu bakoitzean, nola egin behar diozun aurre egoerari eta zein erritmotan joan behar zaren. Korrikalari guztiok tankerako patroia erabiltzen dugu. Norberak bilatzen du erosotasuna lasterketan zehar; hau da, horrenbeste kilometroren aurrean, noiz joan lasterka eta noiz oinez».

Antolakuntza aldetik ahalegin berezia egin dute ahalik eta hornidura postu gehien jartzeko. Gutxi gorabehera, 10 kilometrotik behin jakien eta edarien postua izango du korrikalariak, eta bertan horrelako probetan ohikoak diren produktu guztiak izango ditu eskura: hainbat fruta mota, ura eta edari energetikoak eta sakoteak, besteak beste. «Korrikalariak jakin badaki halako lasterketetan jatea eta edatea oinarri-oinarrizkoa dela, gorputzak asko erretzen duelako, eta energiarik barneratzen ez badu ahuleziak jokoduela. Horregatik, oso garrantzitsua da lasterketa osoan zehar ongi elikatzea», azaldu du Ehunmilak probako antolatzaileak.

Horrenbeste kilometro ditu probak, ezen parte-hartzaileek denetariko egoerak pasatuko dituela: une txarrak eta onak, behin eta berriz. Gorabehera handiak izango dituzte ibilbidean. Memento gogorrei aurre egiteko, probaren webgunean (*www.ehunmilak.com*) parte-hartzaileei zuzendutako gomendioak jarri dituzte, Jon Aranburu prestatzailearen eskutik. Beste talde, masajistak ere izango dituzte bideko hainbat gunetan.

### Babesa eta berotasuna

Mont Blanc-eko ultratraila eredutzat hartuta antolatu dute guztia. «Chamonix-en izan nintzenean, esaterako, jendearen aldetik berotasuna sentitu nuen. Oro har, ekitaldiak oso ongi antolatzen dituzte eta zaleen babesa dute beti, goizaldeko orduak izan, mendian zein herrian. Orduan, horrelako zerbait lortzen saiatu gara, herrietako elkarteak eta udalak inplikatuz», dio Valdivieldok.

Izan ere, 168 kilometrotan korrikalariek bakardadea somatuko dute une gehienetan. Beraz, «goazen jendeari deialdia egitera, proba animatu, babestu eta gozatu dezan, eta korrikalariei merezi dituzte txaloak eskaini diezaion. Une horretan ezinbestekoak dira txalo eta animo horiek, sufrimendua ahaztarazten laguntzen baitute».

## » EGITARAUA

Lasterketak ostiralean hasten badira ere, asteburu osoko kirol ekitaldia izango da Ehunmilak.

### Uztailak 15, osteguna

- **17:00etatik 20:00etara.** Probetako dortsalen jasotzea.

### Uztailak 16, ostirala

- **10:00etatik 13:00etara.** Probetako dortsalen jasotzea.
- **13:00etatik 17:00etara.** Ehunmilak probako bidean eskuragarri izango diren material eta dutxarako poltsak jasotzea.
- **18:00etan.** Ehunmilak-en irteera.
- **18:30etik 20:30era.** Goierriko Bi Handiak-eko dortsalak jasotzea.
- **18:30etik 22:00etara.** Goierriko Bi Handiak probako bidean eskuragarri izango diren material eta dutxarako poltsen jasotzea.
- **23:00etan.** Goierriko Bi Handiak lasteketaren irteera.

### Uztailak 17, larunbata

- **16:00ak aldera.** Ehunmilak probaren lehen korrikalariaren helmugaratzea.
- Oraindik zehaztu gabe dago lasterketa motzeko lehen korrikalariaren helmugaratze ordua.

### Uztailak 18, igandea

- **18:00etan.** Lasterketetako irabazleei sariak banatuko zaizkie.

## » KONTROL GUNEAK

Ibilbide luzea egiteko gehienezko denbora 48 ordukoa da; ibilbide motzeko, 22 ordu. Hona hemen kontrol guneen ordutegi mugak.

- **20. kilometroa.** Zumarraga-Urretxu: 5 ordu eta 35 minutu.
- **55. kilometroa.** Azpeitia: 15 ordu eta 17 minutu.
- **77. kilometroa.** Tolosa: 21 ordu eta 24 minutu.
- **106. kilometroa.** Txindoki: 30 ordu.
- **132. kilometroa.** Etxegarate: 37 ordu eta 47 minutu.
- **159. kilometroa.** Oazurza: 45 ordu.
- **167. kilometroa.** Beasain: 48 ordua.

### Oharra

- Lasterketa baimendutako ordutegi mugen barnean amaitzeko kalkulatuta dago, betiere geldialdiak kontuan hartuta. Korrikalari batek lasterketan jarraitzeko baimena izan dezan, ezarritako gehienezko denbora baino lehen iritsi beharko du kontrol-gunera. Muga hori gainditzen duen oro lasterketatik kanpo geldituko da.

TAPIA
TELEKOMUNIKAZIOAK eta INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Enpresa baimendua
• Kiroldegi, Eskola, Etxebizitza eta industrirako instalazioak
• Automatismoak, Kontrolak eta Mantenimenduak
Zubikoeta Industrialdea, 9
ATAUN
☎ 943 889 594 / 652 777 493
info@tapiainstala.com

hitza
bertako egunkaria
HITZA, orain gertuago
euskarazko egunkaria etxean jasotzeko,
aukeratu zure eskualdea edo hiria eta egin harpidetza:
902-82 02 01
(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)
gainera zozketak, promozioak, deskontuak eta hainbat abantaila izango dituzu.

